

**2002KO AZAROAREN 28AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIKO AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zortzia.

HILABETEA: Azaroa.

URTEA: Bi mila eta bira

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Patxi Plazaola Muguruza
Ana Isabel Asla Egialde
Jose Antonio Guirado Tristan
Pello Garaialde Goikoetxea
Josi Insausti Mujika
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Leire Lopez Zurutuza
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge
Jorge Juan Outeiral Fernandez

ETORRI GABEAK: Arantza Aseginolaza Azkargorta
Jon Berbel Aiestaran
Aimar Larrea Garin

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA

2002ko urriaren 24ko batzaraldiko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- KREDITU-ALDAKETA

Alkate jaunak Udalaren eta Euskaltegiko aurrekontuaren ondorengo kreditu gehigarriak onartzea proposatu du.

a- Kreditu gehigarriak (Udalaren aurrekontua)

“GASTUAK ETA KREDITU-ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa-mailak behera egiteak, kalte handiak sortuko lituzke, eta horiek finantzatzeko aurrekontu-kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu-egiturari egokituta.

Aurrekontu-kontusaila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1.10.00.227.322.10.07	Goieki: ehungintza proiektua	0,00	6.612,00	6.612,00
1.20.00.211.313.21.00	Eraik. iraupena: larriald. etxeb.	752,00	300,00	1.052,00
1.21.00.227.313.33.04	Berdintasun programa	0,00	6.010,00	6.010,00
1.40.00.211.451.21.01	Dantza irakask. gela egokitzea	0,00	3.305,00	3.305,00
1.60.00.200.452.10.01	Gazteriarentzako aretoa: errenta	5.115,00	1.000,00	6.115,00
1.70.00.213.222.10.00	Ibilgailuen mant.: Udaltzaingoa	1.803,00	1.500,00	3.303,00
1.70.00.212.222.50.02		7.813,16	6.200,00	14.013,16

1.70.00.226.222.10.02	Ins. Iraupena: seinaliz. horizont	1.803,00	500,00	2.303,00
1.90.00.224.121.00.99	Hainbat gastu: Udaltzaingoa	23.381,00	7.353,49	30.734,49
1.90.00.224.121.00.02	Aseguru primak: Zerbitzu Oroko	5.415,79	106,89	5.522,68
1.20.00.480.313.20.00	Aseguru primak: Ibilgailuak	69.116,00	3.000,00	72.116,00
1.20.00.622.313.80.01.2001	Gizarte larrialdietarako gastuak	60.101,21	12.244,51	72.345,72
1.41.00.622.422.90.01	Ezkiaga Etorb.: Eguneko Zentroa	141.237,84	2.183,68	143.421,52
1.50.00.601.452.50.01	Eraik: Lizeoko aldagelak	337.193,63	13.145,49	350.339,12
1.90.00.624.449.10.01.2001	Futbol zelaia	33.055,67	944,99	34.000,66
1.90.00.601.511.10.01	Obra zerbitzuko ibilgailua	42.071,00	9.964,01	52.035,01
1.10.00.933.010.00.00	Azp. eta urb.: Kale asfaltaketa	503.001,89	3.176,32	506.178,21
	Mailegu-amortizazioa: enpresak			
GUZTIRA		1.231.860,19	77.546,38	1.309.406,57

KREDITU OSAGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarrerren kontzeptuak edota gastuen kontusailak	Baliabidearen kontzeptua	Sarrera handiagoak/ gastuetako
---	--------------------------	--------------------------------------

		bajak
1.10.00.224.111.00.99	Aseguru primak: Zinegotziak	6.098,67
1.90.00.201.121.00.00	Lokalen errenta eta kuotak	10.000,00
1.10.00.332.010.00.01	Maileguen interesak	31.000,00
1.50.00.622.449.10.02	Biltegia egokitzeko lanak	30.447,71
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		77.546,38

b- Kreditu gehigarriak (Euskaltegiko aurrekontua)

Alkate jaunak kreditu gehigarri hauen arrazoia azaldu du, hau da: 2000. urteko aurrekontuetan gela baten informatizazioa aurreikusi zen, baina 2001. urtera arte ez zen egikaritu eta aurten iritsi dira fakturak. Gehikuntzako kontusail horiek, Euskaltegiak dituen gerakinekin finantzatzeko dira.

GASTUAK ETA KREDITU-ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak, kalte handiak sortuko lituzke, eta horiek finantzatzeko aurrekontu-kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu-egiturari egokituta.

Aurrekontu- -kontusaila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1.0000.626.455.20.01	Informazio prozesuetarako ekipoa	3.000,00	10.337,65	13.337,65
1.0000.625.455.20.01	Altzariak	0,00	13.252,90	13.252,90
GUZTIRA		3.000,00	23.590,55	26.590,55

KREDITU OSAGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen kontusailak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Baliabidearen partziala
2.0000.870.000.00.01	Kreditu osagarriak finantzatzeko aplikazioa	26.590,55
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		26.590,55

Hitz egiteko txanda eman ondoren, PP eta PSE-EE/PSOeko ordezkariak adostasuna azaldu dute proposamenarekiko.

Andoni Antxia (Beasaingo Sozialista Abertzaleak) jaunak: "Gauza pare bat komentatu bakarrik. Ikusten denez, gastu gehienetan, desbideraketa ez da

hainbestekoa. Egunerokotasunarekin gauza askori buruz prebizioak egitea zaila da, baina barkaezina da Eguneko Zentrorako lokala erosteko BEZ ahaztea. Halaber, iruditzen zaigu kale-asfaltaketan egin behar diren prebizioak kontuan izatea ez dela hain zaila. Beste aldaketak, gastu arruntetan sartuko lirateke, beraz, ados gaude."

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- HITZARMENAREN ALDAKETA. Osakidetzarekin sinatutako hitzarmena aldatzeko proposamena.

Alkateak, hirigintza-batzordeburu den Patxi Plazaola jaunari eman dio hitza eta hark proposamenaren berri eman du:

"Orain dela urte eta erdi Osakidetzarekin hitzarmena sinatu zen, eskualderako osasun-zentro berria egiteko. Eraikin berriaren eraikuntzarako Osakidetzak Udalarari 721.214,53 € -ko ekarpena egitea onartuta dago. Hitzarmenaren arabera, dirulaguntzaren ordainketa 2001, 2002 eta 2003. urteetan burutuko da. Baina egindako aurreikuspenarekiko, urtebeteko atzerapenarekin gabiltza. Beraz, Osakidetzak hitzarmenaren bigarren hizbaketa, hots, finantzaketari dagokiona hain zuzen ere, era honetan aldatzea proposatu du:

2001. urtea: 6.010,12 € lanaren proiekturako aurrerapen gisa.

2003. urtea: 54.091,09 € gauzaturiko lanaren proiektuko faktura aurkeztu ondoren.

300.506,05 € Udalak zenbateko hori duten lanen ziurtagiriak aurkeztu ondoren; aldez aurretik noski Eskumendun Zuzendaritzak onartuak izan behar dute eta eragiketa horretan gauzatuak.

2004. urtea: 360.607,26 € zenbateko horretako lanen ziurtagiriak aurkeztu ondoren; aldez aurretik noski Eskumendun Zuzendaritzak onartuak izan behar dute eta eragiketa horretan gauzatuak."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, PP eta PSE-EE/PSOeko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Andoni Antxia (Beasaingo Sozialista Abertzaleak) jaunak: "Bai, ados gaude, baina ez dadila gehiago atzeratu, zeren eta denok gaude aldaketa horren zain."

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- PLANTILA. 2002. urterako Euskaltegiko plantilaren eta lanpostuen zerrenda onartzeko proposamena.

Alkate jaunak 2002. urterako Euskaltegiko plantilaren eta lanpostuen zerrendaren berri eman du:

PERTSONAL LABORALARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU-KOPURUA	LANBIDE-MAILA	SARTUTAKO TALDEA	EGOERA	OHARRAK
Zuzendaria	1	2	B	Behin betikoa	* Zuzendari lanpostua aldakorra da eta hiru urtean behin hautatzen da.
Irakasle titularrak	3	2	B	Behin betikoa	
Irakaslea	1	2	B	Finko etena	
Administrari Laguntzailea	1	7	D	Behin betikoa	

Berarekiko zeresanik ez dagoenez, bozketa eginda eta aho batez onartu da.

5.- EUFALEBA. Euskadiko Toki Administrazioen zerbitzura dauden langileen lan-baldintzak 2002. eta 2003. urteetarako arautzeko hitzarmen politikoa onartzeko proposamena.

Alkate jaunak: "Proposamen hau gobernazio-batzordetik dator, batzorde horretan aztertu baita. Aurten ez da posible izan EUDELen, langileen ordezkarien eta Udalen ordezkarien arteko akordiorik lortzea. Akordio-gabezia horren ordeztzeko, EAJ/PNV, PSE//EE/PSOE, EA eta PP alderdiek sinatutako hitzarmen politikoa proposatzen da. Laburpen bat eginez eta garrantzitsuena azpimarratuz esango dizuet, proposamen honek 2002. urterako ondorengoa planteatzen duela:

- Soldaten % 3ko igoera.
- Urteko lanaldia, iaz bezala mantentzen da, hau da, 1592 ordukoa izango da.
- Udalak Elkarkidetzarako % 0,5 gehiago ordainduko du.
- Beste baimen batzuek ere badaude, baina azpimarragarriena nire ustez zera da, borondatezko erretiroagatiko sarien zenbatekoak. Gaizki ez banago orain arte hirurogei urterekin aurre-jubilatzen zenak, hamazazpi edo hamasei soldata jasotzen zituen eta orain hemeretzi jasoko lituzke eta horrela urtero proportzio horretan igotzen dira lehendik onartutako kopuruak.

2003. urterako proposatzen den igoera Estatuko KPA da, gaur egun Euskadikoa baino handiagoa dena, gehi 0,21 eta Elkarkidetzako ekarpena % 0,5 gehiago."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dituzte proposamenarekiko.

Julio Herreros (PP) jaunak: "Estamos de acuerdo".

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: "Guk proposamena onartu egiten dugu, baina komentario bat egin nahi nuke. Aspalditik kanpaina nahiko zorrotza izan da, enpresa-batzordea hitzarmen politiko honekin ados ez dagoelako eta horren ondorioz, proposatzen zuen tokiko hitzarmen bat egitea. Guk beti defendatu izan dugu horrela mantendu behar dela. Guk uste dugu kaltegarria izango litzatekeela udalarentzat akordio komuna apurtzea hitzarmena

negoziatzeko. Erabat ezinezkoa izango litzateke udal batentzat bakarrik hitzarmena negoziatzea eta adostasunik ez balego presioak agoantatzea. EUDEL mailan horrelako akordioa izatea positibotzat jotzen dugu.”

Andoni Antxia (Beasaingo Sozialista Abertzaleak) jaunak: “Guretzat ere akordioa ona da eta zentzu horretan Jose Luisek aipatzen zuenarekin ados gaude. Desadostasun bat edo beste badugu Beasainen planteatzen denarekin. Guretzat emaitzak hobeagoak izango lirateke denentzat hitzartutakoak izanda. Goi-mailako mahaiarekin eta hortik etortzen diren akordioekin ados gaude. Dena dela eraman den prozedura ez dugu onartzen, inposaketa erabili delako hitzarmen hau erabakitzerakoan. Horrela izanik, hau da, helburuarekin ados egonik, baina inposaketa gaizki ikusten dugulako, gure jarrera abstentzioarena izango da.”

Alkate jaunak: “Nik pena azaltzen dut EUDEL-en akordioa lortzea posible izan ez zelako. Harremanetarako eta udal-funtzionamendurako orain arte egokia izan da eta horregatik datorren urtean gure helburua adostasun hori birbideratzea izango da, baina gertatzen dena da, bi aldeen artean akordioa posible ez denean baina aurretik nahita nahiez kontsentsua behar dela esaten bada, bi aldeetakoren bati beto aukera ematen zaio. Galdera betikoa da, noren erruz ez da akordiorik lortu?. Kasu honetan diferentzia oso murrizta zen eta harrigarria da benetan, akordioa lortu ez izana. Espero que del “no acuerdo” todos aprendamos y que si estamos convencidos que para el buen funcionamiento y la armonia de la Admon Local es bueno el acuerdo sepamos entender el error para que en el futuro no suceda.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (Beasaingo Sozialista Abertzaleak)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioaren zerbitzura dauden langileen lan-baldintzak 2002. eta 2003. urteetarako arautzeko hitzarmen politikoa onartu da.

6.- MOZIOA. Autodeterminazio-eskubidea eta 2002ko urriaren 16ko Garzon epailearen autoari buruz, Beasaingo Sozialista Abertzaleak taldeak aurkeztutako mozioa.

Alkateak, Andoni Antxia Beasaingo Sozialista Abertzaleak-en bozeramaileari hitza eman dio eta hark mozioa irakurri du:

“Nazio Batuen Erakundeak onartutako Eskubide Zibil eta Politikoen Itunaren 1. artikuluan agertzen da Autodeterminazio Eskubidea. Hain Maila gorena duen eskubidea izan arren, bere aurkako adierazpen eta eraso ugari jasan behar izan dugu Euskal Herrian. Urrunago joan gabe, Urriaren 16an Madrilgo Audientzia Nazionaleko Instrukzioko 5. zenbakiko Epaitegi Zentraleko Garzon epaileak, 35/2002 sumarioaren barruan, kaleratutako auto berrira hortxe daukagu. Epaile honek, -Espainiako Gobernuaren eta Espainiako hainbat komunikabide eta estamentu politiko, juridiko, sozial eta militarren babesarekin- traiektoria luzea du Euskal Herriaren eta euskal hiritarren aurkako ebazpenak ematen eta inolako oinarri juridikorik ez duten autoak ateratzen.

Oraingo honetan, autoak duen intenzionalitate politiko nabariak gain, Euskal Herriaren errealtate sozialari buruzko interpretazio zentzugabeak egiten ditu, nolabaiteko obsesio baten isla izan daitezkeenak. Honela, besteak beste, legean oinarriturik egiten diren “jaiotze berrien erregistro aldaketak” hauteskunde eroldaren manipulaziotzat jotzen du; nazioarteko zuzenbideak definitzen eta arautzen duen autodeterminazio eskubideari buruzko burutazio eta asmakizun izugarriak planteatzen ditu, berez eskubidea dena delitu bihurtu arte; Batasuna erakunde politikoaren lan ildoak buruzko interpretazio subjektibo eta bitxiak egiten ditu; kargu publikoen balizko ordezkapenei buruz mintzatzen da; hauteskundeetako emaitzak nazien garaiko Alemanian gertatutakoaz parekatzen ditu,.....

Finean, Garzonek bere marka guztiak hautsi egin ditu eta, auto berri honekin, Espainiako justizia sistemaren benetako aurpegia erakusten digu: Gobernuak dituen beharrizan politikoek menpeko eta interes politikoek arabera.

Oraingoa, ordea, ez da epaile honen jokaera kuestionatua izaten den lehendabiziko aldia. Izan ere, begi bistakoa da epaile honek hartzen dituen erabaki gehienek duten oinarri eta fundamentu juridiko falta, bai eta Estatuko Gobernuak duen interes politikoekiko erabateko atxikimendua. Gasteizko Gobernuak behin baino gehiagotan adierazi du epaile honek prebrikazio-delitua egin duela bere ebazpenekin eta beraren aurkako kereila aurkeztu du Espainiako Epaitegi Gorenaren aurrean; kereila honetan, besteak beste,

segurtasun-falta juridikoa sortaraztea leporatzen dio epaile honi, bai eta oinarrizko eskubide batzuen urraketarako neurriak hartzea.

Hau guztia dela eta, honako erabakiak hartzea proposatzen da:

1. Udal honek Nazio Batuen Erakundeak onartutako Eskubide Zibil eta politikoen Itunaren 1. artikuluan agertzen den Autodeterminazio Eskubidea berretsi eta bere aldeko defentsa irmoa egingo duela aldarrikatzen du.
2. Udal honek erabateko desadostasuna adierazten du, Garzon Epailearen 2002ko urriaren 16ko autoaren aurrean. Epaileak Euskal Herriko errealitateaz egiten duen kontaketa zeharo faltsua da eta euskal herritarrentzako iraingarria. Gainera, epailearen jarrerak eta autoaren edukiak Euskal Herriko bizitza politikoan onartu ezinezko hamaikagarren esku-hartzea suposatzen dute.
3. Udal honek, Garzonen eskaerei uko egitea erabakitzen du, auto honen bitartez eskatzen diren datuak ez bideratuz; batetik, autoak inolako oinarri juridikorik ez duelako, eta bestetik, lehendabizi akusazioak egiten direlako eta, ondoren, akusazioak mantentzeko frogak eskatzen direlako. Akusazioa alde aurretik egiten da, frogetan eta irizpide objektiboetan oinarritu gabe.
4. Udal honek, Garzonen auto berri honetan ematen den Autodeterminazio Eskubidearen kriminalizazio saioa salatu egiten du. Honen helburua, nazioarteko zuzenbideak jasotzen duen funtsezko eskubide honen helburua, nazioarteko zuzenbideak jasotzen duen funtsezko eskubide honen balizko gauzapenerako oztupoak jartzea da, epaile bati ez dagozkion funtzio eta balorazio politikoetan sartuz.
5. Udal honetatik, berretsi egiten dugu proiektu politiko guztiak zilegiak direla eta, beraz, bere defentsa eta gauzapenerako aukera berdinak izan behar dituztela.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jaunak: “So pretexto de una defensa del derecho de autodeterminación a la carta donde se describe al País Vasco como una colonia, cuando es una Comunidad Autónoma de España, se ataca la independencia del poder judicial y se exige el incumplimiento de las resoluciones judiciales en contra de lo previsto en la Constitución.

Es una moción que atenta contra la división de poderes del estado de derecho: ejecutivo, legislativo y judicial, que incorpora la Constitución española, y ésta es además fiel reflejo de la Carta de derechos de las Naciones Unidas.

Para ello se vierten una serie de infundadas e insostenibles imputaciones en contra de un miembro del poder judicial que se limita a cumplir con sus funciones.

Lo que necesita el País Vasco es la condena del terrorismo y la total desaparición de ETA, verdadera lacra de nuestra sociedad y principal responsable del déficit democrático y permanente violación de derechos que sufrimos.

Por lo tanto votaremos en contra de la moción.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE): “Gu ez gara sakontasun handietan sartuko zeren eta ia hilabeteroko beste mozio besterik ez da. Gu ez gaude ados ez mozioaren oinarriekin ezta ere mozioan proposatzen diren puntuekin. Betiko kontua. Hemengo arazoaren oinarria ikusi nahi ez denean, horrela jarraituko dugu behin eta berriro. Aurka bozkatuko dugu.”

Alkate jaunak: “Gure jarrera definitzeko mozio alternatibo bat aurkeztuko dugu. Guk proposatzen duguna da Udalak adierazpen bat onartzea, jakinda, Autoa hona ez dela iritsi. Beraz, momentu honetan ez dugu informazioa emateko beharrik. Gu ados gaude herri honetan arazo nagusienetako bat ETA dela, baina baita ere ekartzen dugu gehiengo batez Udal honetan onartutako EUDEL-en deklarazioa. Han esaten da ideia politiko guztiak, zilegi direla herriaren gehiengoaren babesa badute eta hori hemen onartu egin da, sistemak marko juridikoa posibilitatu beharko duela nahita nahiez hori gauzatu ahal izateko. Guk horrekin bat egiten dugu. Ikusten dugu, Garzonen aldetik badagoela operazio politiko-judizial bat eta nahiko lotsagarria dela. Guregana iritsi da Garzonen auto bat, baina ez dakigu jaso dugun ala ez, zeren eta toki batzuetara faxez iritsi da, beste batzuetara posta arruntez eta gure kasuan posta ziurtatuz, ofiziorik gabe eta autoaren kopia bat. Nire kezka da, Garzonek benetan jakin nahi arazi dion herri honi bere agindua ala ez. Guk uste dugu Beasaingo Sozialista Abertzaleak taldeak aurkeztutako mozioa ez dela batere

azkarra. Guk hori onartuko bagenu, bihar izango genuke hemen agindua betetzeko. Helburua guk hemen onartuta ditugun akordio politiko horiek aurrera eramatea bada, horren aurrean jokatzeko beste modu egokiago batzuk badaude. Adibideak baditugu hemen oso hurbil, baina aipatu ezin direnak.”

Alkateak EAJ/PNV-EAk aurkeztutako aurkako mozioa banatu du eta zinegotziek irakurri ondoren, hitz egiteko txanda eman da.

Julio Herreros (PP) jaunak: “En contra de la contramoción.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE): “Guk ere ez dugu onartzen mozio alternatiboa. Berrito ere jokoan sartzea da zeren eta epaile baten jarduerak epaitzen dira. Gu ez gaude ados hemen planteatzen den moduarekin.”

Andoni Antxia (Beasaingo Sozialista Abertzaleak) jaunak: “Gu ados gaude mozio alternatiboarekin.”

EAJ/PNV-EAk aurkeztutako mozio alternatiboa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ/PNV-EA, Beasaingo Sozialista Abertzaleak)

Aurkako botoak: 5 (PSE-EE/PSOE, PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, ondorengo mozioa onartu da:

“Baltasar Garzon Epaileak 2002ko urriaren 16an emandako autoaren aurrean, Udalbatzari, ondorengo adierazpen hau onartzeko proposamena egiten diogu:

1.- Urriaren 16an Entzutegi Nazionaleko Epaile den Baltasar Garzonek emandako autoaren aurrean, gure desadostasuna adierazi nahi dugu. Oraingoan ere, bistan gelditzen da, argudio juridikoen gaintik, bultzada politikoak direla epaile "berezi" horren jokabide mugitzen dutenak.

2.- Auto horretan jasotzen diren orokortasunak eta balorazioak, arriskutsuak direla deritzogu, euskal gizartearen irudi distortsionatua eskainiz eta hainbat planteamenduren gainean itzalak sortuz.

3.- Hainbatetan Udal honetan adierazi denari jarraituz, berretsi egiten dugu egitasmo politiko eta demokratiko oro defendatu eta garatu egin behar dela eta herritarren gehiengoaren babesa badauka, gauzatzeko aukera egon behar duela. Horretarako, ezinbestekoa da aukera politiko guztien ordezkariak askea eta defentsa eraginkorra errespetatzea eta arau demokratikoei eta politikak eskaintzen dituen mekanismoak dira borondate kolektiboa eratzeko erabili behar diren bakarrak.”

PREMIAZKO PUNTUA

Alkate jn.ak gizarte-ongizatek datorren “Euskal udalerriak emakumezkoen indarkeriaren aurka” izeneko adierazpenari buruzko adierazpena tratatzea proposatu du.

Premiazko puntu bezala tratatzeko bozketa egin da eta aho batez onartu da tratatzea.

Alkate jn.ak, gizarte-ongizateko batzordeburu Ana Asla and.ari eman dio hitza eta hark adierazpena irakurri du:

“ADIERAZPENA

“EUSKAL UDALERRIAK EMAKUMEZKOEN INDARKERIAREN AURKA”

EUSKAL UDALERRIOK

ZERA ADIERAZI NAHI DUGU: Gure gizarteak gaur egun duen arazorik larrienetakoa emakumezkoek jasaten duten era guztietako biolentzia da. Etxeko tratatu txarrak, sexu erasoak, sexu jazarpenera, genitalen mutilazioa, emakume eta neskatilen trafikoa, sexu esplotazioa, eta abar”, biolentzia horren adierazpen desberdinak dira. Denak dira emakumeen duintasunen aurkako eraso zuzena eta horren ondorioz, giza eskubideen bortxaketa larria eta onartezina dira.

ZERA ADIERAZI NAHI DUGU: Emakumezkoen aurkako indarkeria emakumezkoen desberdintasunean oinarritutako gizarte baten adierazpena da; desberdintasun horren arabera, rol desberdinak atxikitzen dira sexuen arabera eta emakumezkoak desbalorizatu eta menpean jartzen ditu gizonezkoen aurrean. Horregatik, arazoari konponbidea bilatu nahi badiogu, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna oztopatzen duten genero estereotipoak gainditzeko lan egin behar dugu.

ZERA ADIERAZI NAHI DUGU: Emakumezkoen aurkako biolentziak bizitza suntsitzeaz gain, emakumei kolektibo gisa bizitzan publikoan parte hartzeko

oztopoak jartzen dizkie eta herritartasun eskubideaz baliatzeko mugak jartzen dizkie. Ez dago herrialde edo gizarterik biolentzia mota horretatik libre geratzen denik; mundu osoan gertatzen den fenomeno da, edozein izanik ere herrialdea, gizarte maila, maila ekonomikoa, etnia, kultura eta adina. Beraz, denoi dagokigun lehen mailako gizarte arazo baten aurrean gaude; gainera, kalkulaezinak eta atzeraezinak diren kostu pertsonal, sozial eta ekonomikoak dakartza eta gure herri eta hirien garapena eta bilakaera ahultzen dute.

ZERA ADIERAZI NAHI DUGU: Azken urteotan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira indarkeria mota honi buruzko kontzientziarioari eta gizarteak eman dion erantzunari dagokionez. Munduko nazio askotan eta nazioarteko eragile desberdinak hainbat alor ukitzen dituzten neurriak hartzen ari dira. Gure Erkidegoan aspalditik ari gara lanean esku-hartze arlo desberdinetan: ikerketa, sentsibilizazioa prebentzioa prestakuntza eta biktimei eskaintzen zaien laguntza eta babesa. Plan ugari garatu da Euskal Autonomia Erkidegoan: Emakumezkoentzako Ekintza Positiborako Plana, berdintasunari buruzko Foru eta Udal Planak eta iaz gai honetan inplikaturako Erakunde guztiek sinatu zuten *etxeko tratu txar eta sexu erasoen biktimei diren emakumeei ematen zaien laguntza hobetzeko erakunde-arteko Hitzarmena*. Alor honetan ekimen garrantzitsuak garatu dira, baina oraindik asko dago egiteko.

ZERA ADIERAZI NAHI DUGU: Udala herritarrengandik hurbilen dagoen Administrazio publikoa denez, eginkizun garrantzitsua dauka emakumezkoen aurkako indarkeriaren prebentzian eta erradikazioan eta biktimei laguntza ematerakoan. Horregatik, gure ustez beharrezkoa da alor horretako udal politikak garatzea eta toki mailako foroak sortzea, ekimenak eta esperientziak elkartrukatzeko eta elkarrekin lanean aritzea errazago izan dadin-

ZERA ADIERAZI NAHI DUGU: Jokabide horien biktimei diren biktimei zuzen eta zeharkakoei gure elkartasuna adierazi nahi diegu eta gure eskura ditugun baliabide guztiak eskaintzeko borondate osoa daukagu, laguntza azkarra, egokia eta eraginkorra emateko.

DEI EGITEN DIEGU herritar guztiei, batez ere gizonezkoiei, biktimekiko elkartasuna adierazi dezaten eta laguntza eman diezaieten eta emakumezkoen aurkako biolentziaren aurrean jarrera aktiboa har dezaten: arbuiauz, salatuz eta biolentziaren aurreko ezetza eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunarekiko errespetua eguneroko bizitzan sartuz eta etorriko diren belaunaldiei transmitituz. Eta emakumezkoen aurkako biolentziari aurre

hartzeko eta aurre egiteko egingo diren ekitaldi publikoetan parte hartzera animatzen ditugu.

KONPROMISOA HARTZEN DUGU, guri dagokigun heinean, udal politika aktiboa aurrera eramateko, emakumezkoen aurkako biolentziari aurre hartu eta desagerrarazteko asmotan eta eraso horien biktimei eskaintzen zaien laguntza hobetze aldera; hori guztia, gure Erkidegoan indarrean dauden arau, plan eta erabakiek xedatutakoaren arabera, Era berean, etorkizunean toki mailan sor daitezkeen ekimen guztiekiko interesa erakutsi nahi dugu, udalek alor horretan egiten dituzten jarduketa guztiak hobetu ahal izateko, jarduketa eta esperientzia desberdinak denon artean elkartrukatzuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da adierazpena.

7.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ondorengoak aurkeztu dira:

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE): “Aste honetan zoritxarrez, Ana eta Javier ertzainak hil zituzteneko urteurrena da eta gure ustez hutsune nabarmena egin da Udalaren aldetik. Beharrezkoa izango litzateke herriaren izenean zerbait eskaintzea. Badakit Alkatea, ertzainekin harremanetan egon dela eta asmoa ekintza pribatua egitea dela. Hori dudarik gabe errespetatu egin behar da, baina guk herri bezala zerbait egin beharko genuke. Gure proposamena, ez orain erabakitzeko asmoarekin, honako hau da: epe laburrean, hil zituzten tokian, biribilgua egiteko asmoa dago. Guk proposatzen dugu hor zerbait jartzea “biolentzia ezari” dedikatua eta azpian “Ana eta Javier oroimenean” jartzea eta hori hornitzeko, herriko eskola guztiei aukera ematea, proposamenak egiteko.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, batzarraldia gaueko zortziak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.